



Erligioari eta fedeari buruz hausnartzen- Ama Brigitarren kapilau Felix Garitanok hitzaldi interesgarria eskaini zuen asteazken arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean. 'Sinestuna naiz...sinesgabea...' izenburupean, hainbat hausnarketa partekatu zituen solasaldia entzutera joandako herritarrekin. Besteak beste, erlijioa eta zientziaren arteko harremanari buruz aritu zen. "Osagarriak izan behar dute erlijioak eta zientziak", nabarmendu zuen. "Garai batean erlijioak azaltzen zituen hainbat fenomeno aise esplikatzeko zientziak orain, baina galdera guztiak erantzutera ez da iristen; zientziak erakutsiko dizu nola gertatzen diren gauzak, baina ez zergatik", azaldu zuen Garitanok. Bestalde, aipatu zuen 'Europa Zaharrea' aldatu egin dela jainkoarekiko dagoen ikuskera, eta ondorioz, "hazi" egin direla "agnostizismoa eta indiferentismoa". Agnostizismoa eta ateismoaren arteko desberdintasunei buruz ere mintzatu zen: "Ateoak ezbaian jartzen du jainkoaren auzia, eta gero erabakitzen du harengan ez duela sinesten; agnostikoak, berriz, interesik ez dauka auzi horretan, eta paso egiten du zuzenean". Herritarrek adi entzun zituzten kapilauaren gogoeta eta azalpenak.

3 KULTURA

Irakurle txokoko kideak Alaine Agirre idazlearekin solasean

Bisita berezia jaso zuten Irakurle Txokoko kideek ikasturte honetako bigarren saioan. 'X hil da' eleberria aztertu zuten, liburuaren idazle Alaine Agirre bermeotarra saioan bertan zela. Besteak beste, idazteko prozesuari buruz hitz egin zuen Agirrek: "Era konpulsiboan idazten dut; nire burua lasaitzeko modu bat da".

4 EUSKARA

Lan erdiak egin dituzte Ahobizi eta Belarriprestek

'Baietz 40 egun euskaraz!' herri-erronkak ibilbide erdia osatu du honezkerok. Ahobizi eta Belarriprest gisa ari diren herritarrek "oso serio" hartu dute erronka, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Era berean, ikerketa "bide onetik" doala nabarmendu dute. Abenduaren 3an amaiera-ekitaldi handi bat egitea aurreikusten dute.



8 TTAKUN

Ttakun Kultur Elkarte, zilarrezko ezteiak ospatzen

Pasa den asteazkenean 25 urte bete ziren Ttakun Kultur Elkarte sortu zela. Urtemuga berezi hori ospatze aldera, pare bat ekitaldi antolatu ditu. Iragan asteazkenean Ttakunenea lokala inauguratu zuen, Bea Egizabalen solasaldiak eta txalaparta doinuek giroa. Bihar, 'Bi Zaldi' taldeak kontzertua emango du Jalgin, 20:00etan.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

Josue

Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak

Gremioen koordinaketa

josueigeltseritza@euskalnet.net

Neure kabuz



Gorka Lasa

Txaparen mintzoa

Hainbat aste pasa dira euskararen aldeko maratoin ospatu zela. 4 urtetik behin egiten den festa honek, 40 orduz lortzen duen arrakasta izugarria da; eta aurten are gehiago berarekin bat ekarri duen berrikuntzarekin; Baietz 40 egun euskaraz!

Maratoiarekin hasi eta abenduaren 3ra arte luzatuko den erronka da, non herritarrok hizkuntzei buruzko aurreiritziak alde batera uzteko ahaleginak egingo ditugun, eta ohitura linguistiko batzuk aldatuz euskararen erabilera, erraztu, sustatu eta bultzatuko ditugun. Horretarako ehundaka Belarriprest eta Ahobizi ikus daitezke herriko kale, plaza, komertzio, ostatu eta txokotan paparrean txapa jantzita. Erronkaren helburuari bultzada emateko hartutako konpromezuaren adierazgarri, eta elkarren arteko hizkuntza konplizitatea sortzeko.

40 orduz oholta gainean euskaraz, 40 egun euskaraz eta badira 40 urte Xalbador bertsolaria zendu zela. Xalbadorren garaian herriak eta hizkuntzak bat egiten zuten, herria zen gorputza eta hizkuntza bihotza, eta orain, askotan, badirudi ez dakigula zein den hizkuntza. Baina hizkuntzak egiten gaitu, eta guk egiten dugu hizkuntza. Xalbadorrek "Odolaren mintzoa" bertso liburua idatzi zuen. Mintzo daitezela orain gure paparreko txapak, mintzo gure mihiak. Herria eta hizkuntza bat daitezela eta hainbeste maite dugun hori, zaindu beharrean, erabili, garatu eta indartu dezagun.

Zorion agurrak



Manex

ZORIONAK txapelduna! Jarraitu beti bezain jator. 8 muxu handi!!!



Alaia

Zorionak maitia guraso eta lagunentzako. Muxu handi bat eta ondo pasa!!!



Aiur

Zorionak bihurritxo!!! Ederki pasako dugu zure egunean. Hiru muxu erraldoi zure familiaren partetik.



Leire

Zorionak maitia!! Hamabi muxu oso oso pottolo Iraia, amatxo eta aitaxoren partetik. Oso ondo pasa!!



Hodei eta June

Zorionak maitiak! Oso ondo pasa zuen 9. urtebetetzeari!



Urko

Zorionak Urko!! Muxu pila bat!! Maite zaitugu!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Etxebizitza salgai Buenos Aires aldapan. 4 gela, jangela, sukaldea, 2 komun. Dena kanpora. 60 metro karratuko garaje itxia. Terreno propioa du. 667 232 300 edo 617 085 803.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean. Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da interna modura asteburuetan eta gauetan lan egiteko. 627 206 110, Alba Lucia.
- Erizain laguntzailea tituluduna eta esperientziarekin masajista lana, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. 622 925 562.
- Aitona-amonak zaintzeko eskaintzen naiz

goiz edota gaueko ordutegietan. Titulua eta erreferentziak. 667 090 692.

- Pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Etxerako zerbitzura, Lasarte-Orian ahal bada. Arreta soziosanitari ziurtagiria eta esperientziaduna. 673 381 470.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048 Doris

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Peru Bengoetxea Alegre, azaroaren 8an.
- Naroa Michelena Vicente, azaroaren 7an.



Heriotzak

- Aitor Uranga Egaña, azaroaren 14an, 52 urte zituela.
- Mariano Marina Marina, azaroaren 11an, 74 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 18 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 19 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 20 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 21 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 22 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 23 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 24 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa | Hernani, Tel.: 943 557738

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munnteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

IRAKURLE TXOKOA



Alaine Agirre Irakurle txokoko kideekin izan zen 'X hil da' liburuaz eta beste hainbat gaiz mintzatzen.

Idazketa, barne hustuketa

Hurrengo saioan 'Beti oporretan' liburua aztertuko da

Irakurle Txokoak ikasturteko bigarren saioa izan zuen asteartean Ttakunenean. 'X hil da' liburua landu zuten eta liburuak aurkezten dituen gogoeten nondik norakoetan gehiago murgiltzeko laguntza berezia izan zuten, Alaine Agirre idazlearena.

TXINTXARRI

Euskal Literaturako lanak aztertzeko gunea dugu Irakurle Txokoa. Uxue Alberdiren eskutik, euskal autoreak eta itzulpenak, etab. aztertzen dituzte. Bi hilabete behin idazlearen bisita ere izaten dute.

Aste honetan, esate baterako, Alaine Agirre idazlea izan da saioan.

Irakurle Txokoko kideek 'X hil da' lana irakurri behar zuten. Maitale bat galdu ostean, protagonistak zehatz mehatz bere gogoetak

paperera eramaten ditu. Gai ezberdinak nahasten ditu bertan.

Era honetara, txokoko kideek haien iritzia eskaini eta testuari buruzko hausnarketa txikia egin zuten Uxueren laguntzaz.

Alaineren eskutik, aldiz, beste hainbat punturen berri izan zuten.

Hala nola, idazketa prozesuari buruz hitz egin zuen Alaine: "Era konpulsiboan idazten dut. Nire burua lasaitzeko modu bat da".

Era berean, bizitzak bere idazkietan eta idatzitakoak

bere bizitzan duen isla ere aipatu zuen: "Errealitate eta fikzioa nahasten ditut. Idazten amaitu eta ez dakit zer izan den benetan gertatutako, zer asmatu dudan edo zer den amestutakoa".

Ipuinak

Hurrengo hitzorduan Harkaitz Cano herritarraren 'Beti oporretan' lana izango da mintzagai.

Udarekin lotutako 14 ipuin bildu ditu idazleak bere lanean. Istorio ezberdinak aurkezten dira, baina ura edo naturaren presentzia handia da.

Saioa abenduaren 20an izango da, asteartez, Ttakunenean, 18:00etatik aurrera.

Irakurle Txokoko kideek herritarrak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

AIRE GARBIA

'Baietz erraustegia gelditu!' ekimena bihar Okendo plazan

'Baietz erraustegia gelditu! Denon konpromisoari esker' lemapean, Aire Garbiak elkarretaratzea antolatu du bihar, 13:00etan, Okendo plazan. Ekitaldia ikusgarriagoa egiteko, plataformak herritarrak animatzen ditu maindire zuri bana eraman dezaten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hondakin Kontsultazioak laster Zubietako erraustegiari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzeko asmoa dute. Hau dela eta, plataformak azaldu modura, ekimenak "bi helburu ditu: bata, Zubietako erraustegi-proiektuari lasarteoriarrok aspaldi eman genion ezezkoa berrestea; bestea, berriz, GuraSOsek azaroaren 26an Donostian antolatu duen manifestazio handian parte hartzeko dei egitea. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Amarako parketik, 'Gipuzkoa + Eman bide osasunari eta adostasunari' izenpean".

"Erraustegiaren kontra egin diren mobilizazioetan, lasarteoriarrok oso parte-hartze nabarmena izan dugu orain arte. Gauzak horrela, ez dugu duda egiten 26ko manifestazioan ere maila emango dugula, baina maila emateko bidean, jendea aktibatuz, 19ko kontzentrazioan parte hartzea garrantzitsua da", adierazi dute.

LAN ESKAINTZA

Guztion programarako kudeatzaile bila

Lasarte-Oriako Udalak Buruntzaldea-Beterri Guztion proiekturako kudeatzaile aukeratzeko enplegu-eskaintza plazaratu du. 6 hilabetez kontratua izango da, lanaldi osoz, astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian eta eskualdeko teknikariarekin egingo du lan. Soldata gordina 2.255 euro izango da, eta lanean hasteko aurreikusitako eguna abenduaren 1a da. Interesatuak Lanbiden egin beharko dute eskaera.

Bere funtzioak jarduteko eremuak identifikatzea eta ezartzea; zesio-akordioak ezartzea; mural-lehiaketarako oinarriak prestatzea; zirriborroen harrera, epaimahaien interbentzioa eta sarien banaketa kudeatzea eta muralen gauzatzea koordinatzea eta ikuskatzea izango dira.

Lanpostuaren eskatzaileak bete beharreko baldintzak berriz, honakoak dira: emakume langabetua eta Lanbiden enplegu-eskatzaile moduan inskribatua egotea; goi-mailako ikasketa unibertsitario amaituak izatea eta Arte Ederrekin edo Arkitekturarekin zerikusia izatea eta EGA titulua edo baliokidea.

Lasarte-Oriako edo eskualdeko udalerrietan errolatutako pertsonak izango dute lehentasuna. Honetaz gain, antolamendurako, plangintzarako eta enpatiarako gaitasuna eta lanpostuarekin zerikusia duten aplikazio informatikoak maneiatzea kontuan hartuko dira.

Curriculum baloratuko da eta elkarrizketa pertsonala egingo da hautaketarako. Gainera, euskara maila egiaztatzeko proba egin ahaliko du Lanbidek.

Atzegiko kideak #KaleAtzegizaleen bila

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte Atzegik sensibilizazio-kanpaina jarri du abian. Urriaren 28an aurkeztu zuten Buruntzaldeako Atzegiko kideek ekimena Hernaniko Plaza Berrin.

Aurten 'Kaleatzegizale. Jarrera kontua besterik ez da!' izango da leloa. Helburua Atzegizale gehiago lortzea da. Hauek keinu sinple batekin eta jarrera positiboarekin, kolektibo honen eguneroko bizitza errazten baitute.

Agerraldian azaldu zuten, horrelako kanpainen ondorioz, "gero eta jarrera positibo gehiago ikusten dira gizartearen".

Era berean, dagoeneko Atzegizale direnei eskerrak eman zizkieten. Adimen urritasuna duten pertsonen

familiak txapak eta 'Atzegizale naiz' dioten txartelak banatu zituzten bertaratu ziren Atzegizaleen artean eta bereziki, irudi hori pertsonifikatu zuten bi hernaniarrekin, Kera arropa-dendako Mentxuk eta Juan Baustista ile-paintzaileak.

Jakitera eman zuten, gaur egun, Donostialdean, 147 familia dira Atzegiko bazkide, 103 kolaboratzaile ditu elkarteak, eta 453 pertsona dira Atzegizale.

Argazkiak

Kanpaina urte osoan zehar bizirik mantendu eta poliki poliki Gipuzkoako kale guztietan Atzegiko kideen bizitza hobetzen duten pertsona horiek ezagutzera emateko asmoarekin #KaleAtzegizale-en argazkiak jaso nahi ditu



Atzegiko kideak, familiak eta Atzegizaleak Hernanin egin zen aurkezpenean.

KRONIKA

elkarteak twitter, facebook edo WhatsApp bidez.

#KaleAtzegizale markoak Gipuzkoan barrena ibiliko dira biran. Argazkia atera eta sare sozialetara igo dezakezu,

@atzezi #KaleAtzegizale hitzak gehituta. Sare sozialetan iaioa ez denak, 609 70 37 09 WhatsApp zenbakira ere bidali dezake argazkia.

Www.atzezi.org/kaleatzegizale orrialdean jasotako argazki guztiak izango dira ikusgai. Bertan ere, argazkiak nola egin eta nora bidali azaltzen du elkarteak.

Ibilbide erdia eginda

Ahobizi eta Belarripresten erronka abenduraren 3ra bitartean luzatuko da

Erronka handia hartu zen Euskararen 9. Maratoiaren bueltan, 40 orduetatik, 40 egun euskaraz egitera pasa zen. Horrela izanda, 600 Ahobizi eta 3.000 belarriprest lotzeko helburua jarri zen. Azkenean, Ahobiziak 957 herritar dira eta Belarriprest izateko aukera oraindik ere zabalik dago. Sustatzaileen hitzetan, erronkak harrera ona izan du herrian eta ikerketa ondo bideratzen ari da. Abenduaren 3an erronkari amaiera emateko ekitaldi handia egitea aurreikusten da.

Laugarren astearen amaieraren inguruan, 'Baietz 40 egun euskaraz!' herri-erronka erdira iritsi da. Antolatzaileek adierazi dutenez, herritarrek oso serio hartu dute konpromisoa eta ongi bideratzen ari da.

"Kalean ere, begi-bistakoak dira txapak, han eta hemen, herritarren paparretan".

Ahobiziak

Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egiten duten 957 herritarrek eman dute izena Ahobizi aritzeko. Eta horrek esan nahi du, pertsona horiek guztiak konprometitu direla urriaren 23a eta abenduaren 3a bitartean dauden sei asteetakoren batean euskara ulertzen duten inguruko (etxeko, lagunarteko, lantokiko...) ezagunekin euskaraz aritzera alde batetik, eta bestetik, ezezagunekin hitz egiterakoan, lehen hitza euskaraz egitera, eta ulertzen

badute, euskaraz jarraitzera, haiek edozein hizkuntzetan erantzunda ere.

Antolatzaileek egun dituzten datuen arabera, erronka lehendabiziko hiru asteetakoren batean egitea egokitu zaien 400 Ahobizietatik, %60tik gora dira saioetara joan direnak eta horietatik %75 dagozkien galdetegiak bete eta prozesua osatu dutenak. Alegia, 180 pertsona inguru.

Gaur bertan, azaroak 18, 5. asteko Ahobiziek emango diote hasiera euren erronka asteari. Herritarrek Sasoeta ikastetxean bilduko dira, astero bezala, motorrak berotu eta erronkan parte hartzeko txapa jasotzeko.

Udaletxeko langile eta politikariak, berriz, 63 Ahobizi eta 22 Belarriprest, atzo bildu ziren, batzar aretoan erronka 5. astean gauzatzeko eta bertan izan zen ikerketa zuzentzen ari



Udaletxeko kideek, zinegotzi zein langilek, erronkarekin bat egin dute 5. txandan.

den EHUKo Pello Jauregi irakaslea ere.

Euskararen eguna jomuga

6. txanda, eta horrekin batera 40 eguneko erronka, abenduaren 3an amaituko da hain zuzen, Euskararen Egunarekin batera.

Antolakuntzatik adierazi dute Ahobizi modura izena eman eta dena delakoarengatik zegokion txanda egin ezin izan duten guztiek badutela bigarren

aukera bat 6. txandara eransteke. Hala egin nahi duenak Udaleko euskaraz-zerbitzuarekin harremanetan jartzea besterik ez du 943 376 184 zenbakian.

Gauza bera Belarriprestei dagokienean, alegia, Belarriprest txapa jaso ez duenak edo izena eman gabe egon eta orain izena eman nahi duenak, euskaraz-zerbitzuan edo Ttakunen egin dezake.

Xehetasunak oraindik lotzeko badaude ere, abenduaren 3an emango zaio amaiera Euskal Herrian erreferente bilakatzen ari den gure herriko erronkari.

Euskararen 9. Maratoiko zortzikotea eta antolatzaileak lanean ari dira azken hitzordu berezi hori erakargarria izan dadin.

Honen ingurukoak hurrengo zenbakietan jasoko du TXINTXARRI-k.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots tipi-tapa

Durangoko Azokara begira, abenduaren 2tik 6ra egingo da, asko dira disko edota liburua estreinatzen duten euskal sortzaileak.

Herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Tipi-Tapa Korrika!' izeneko disko-liburu bikoitza aurkeztu dute. Korrika da pailazoen lan eta ikuskizun berriaren oinarri.

Korrika, bere 20. urteurrenean gai nagusi aukeratzeko arrazoen artean, hiru nabarmendu dituzte pailazoek.

Batetik, Marimotots Extremaduratik etorritako familia batean jaio zen eta erdal giroan hazi bazen ere, euskaraz ikasi zuen AEKn; Porrotx familia euskaldun batekoa bada ere, inguru eta lagunartea eta erdaliduna zituen, eta AEKn alfabetatu zen; eta azkenik, Pirritxek duela sei urteko Korrika amaiera izan du gogoan, eta orduko hartan lekukoa

eramanez jasota eta bizitako guztia sentiarazi nahi dute herriz herri.

Urbietaren omenez

'Haizearen herrira' da bigarren diskoa. Honetan Imanol Urbietaren abesti batzuk jaso dituzte.

Urbietaren eredu izan zutela adierazi zuten pailazoek aurkezpenean, izan ere duela 25 urte argitara eman zuten lehenengo diskoan haren abesti batzuk jaso zituzten. Berriki zendutako musikagile zarautzarraren inoiz argitaratu gabeko abesti batzuk grabatu dituzte pailazoek baita betiko beste batzuen bertsioak ere.

Bigarren disko honen sustatzaile lanetan Urbietaren bikotea Kontxi Aizarna ibili da, eta hainbat kolaborazio izan ditu: Salvatore Mitxelena Ikastolako haurrak, Iosu Txapartegiren gidaritzarekin eta Zarautz eta Zarautz Txiki



Pailazoen lan berrien azalak, Korrika zein Imanol Urbietaren omenezkoa.

abesbatzak, Jaione Eskudero eta Antxon Sarasuaren ardurapean. Mendi margo-lariak ere parte hartu du liburuxkaren diseinuan.

Ohi bezala, lan berri honetan hamaika lagunek hartu dute parte, letragile, musikari edota kantagintzan.

Besteak beste, Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Jon Maia, Miren Amuriza, Bernardo Atxaga, Jabier Muguruza, Amets Arzallus, Onintza Enbeita eta Ane Labaka.

Egan talde mitikoari ere omenaldi txiki bat egin nahi izan diote taldearen izen

bereko abestiarekin, eta Xabier Saldiasek berak abesten du.

Disko-liburu berria uztailean, irailean eta urrian grabatu zuten, Andoaingo Garate estudioan, Kaki Arkarazoren eskutik. Xabier Zabalaren gidaritzapean 32 abesti, 17 eta 15, jaso dituzte, erritmo eta kolore askotarikoak.

Ikuskizunak

Ikuskizun berria ikusteko interesa dutenek, gertu bi hitzordu izango dituzte.

Abenduaren 11n, igandean, Usurbilgo kiroldegian izango dira pailazoak 11:30ean hasiko den saioan.

Haurren Gabonetako oporraldiaren baitan berriz, urtarrilaren 3an, bi saio eskainiko dituzte pailazoek Donostiako Kursaal-ean. Hauek 16:00etan eta 19:00etan izango dira.

**Ekonomia
Suspertzeko Plana**

**200M€
2015 > 2019**

Gure lurraldeko **ekonomia,
enplegua eta ongizatea** indartzeko.



ORAIN EKONOMIA

Ekonomia *Suspertzeko* Plana

200 milioiko inbertsioa gure enpreetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€
2015 > 2019**

Industria
Lehen Sektorea
Gizarteratzea
Kultura eta Turismoa

LABURRAK.-

Jardunaldi ezin hobea bi jubenil taldeentzat

Ostadar SKTren areto-futbol alorreko bi talde jubenilek denboraldiko lehenengo garaipena erdietsi zuten joan den asteburuan. Kafe Bar Buenetxeak 6-0 garaitu zuen Aloña Mendi; Lasarte Kafe Barrek, berriz, 2-4 hartu zuen mendean Inter. Garaipen horiei esker lau eta hiru puntu dituzte bi taldeek euren multzoetako sailkapenetan, hurrenez hurren.



OSTADAR ARETO

Gipuzkoako 1go mailan ari diren bi taldeek ere jokatu zuten. ISU Leihoak hiruna berdindu zuen Inter Eder Kafetegiaren aurka; Cecilia Kebab Lasarte Ostadarrek, berriz, 3-1 galdu zuen Jaixki AFTren kantuan.

Aitor Uranga gogoan

Dolu-egunak ari da bizitzen herriko Beltzak errugbi eskola, fundatzaile (Ostadar SKTrena ere bai), entrenatzaile eta zuzendaritzako kide izandako Aitor Uranga herritarra zendu baita aste honetan. "Eskolaren alde lan handia egin duen pertsona handi bat joan zaigu, Michelingo hirugarren denborak antolatuta dituen arteotan; ez zuen igande bakar batean ere hutsik egin, uneoro kezkatzen zen jokariengatik eta errugbi zaletasuna sustatu zuen herriko gazteen artean", adierazi dute Beltzak eskolako kideek. "Horrelako uneetan, partiden emaitzak gutxienezkoa dira", gehitu dute.

182 herritar Behobia-Donostia lasterketan

Urtero legez, hainbat herritarrek hartu zuten parte Behobia-Donostia lasterketa entzutesuaren modalitate desberdinetan. 182 izan ziren guztira: 20 kilometro pasatzoko lasterketan, 167; gazteengan, 14; eta patinatzaileenetan, bat. Helduen lasterketan David Martin beteranoa izan zen herritar azkarrena, 01:10:27ko denbora eginda. Lehenengo emakumea berriz, Mari Carmen Olaso, beterano kategoriakoa baita ere. 01:33.37ko marka egin zuen aipatu herritar horrek.

Bestalde, Beñat Los Arcos herritarra 7. helmugaratu zen trail laburreko (10 kilometro) BKT Bizkaia Kopa Trail ligako azken aurreko proban, Zamudion. 55:48ko denboran osatu zuen ibilbidea herritarrek. Gauzak horrela, sailkapen orokorreko bosgarren postuan dago orain, 2.970 punturekin. "Oso pozik nago Zamudion egindakoarekin; beste behin ere, lehenengo hamar sailkatuen artean amaitu dut proba", adierazi du Los Arcosek.

IGERIKETA.-

Uzta oparoa Ordizian

Neguko Ligan murgilduta dabilta Buruntzaldea IKTko kideak

Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak uzta oparoa ekarri zuten bueltan Ordiziako igerilekutik. **Kategoria desberdinetako kideek emaitza onak erdietsi zituzten Neguko Ligako 2. jardunaldian. Datozen asteetan are hobekiago lortzeko lanean segitzen dute igerilariak.**



BURUNTZALDEA IKT

Kategoria desberdinetako igerilariak jokatu zuten Neguko Ligako 2. jardunaldia.

TXINTXARRI

Hogeita marka pertsonaletik gora, taldeko hiru errekor berri eta errelebutako taldeko marka berri bat. Horra hor Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak iragan larunbatean Ordiziako Majori kiroldegian lortutako uzta. Neguko Ligako 2. jardunaldia jokatu zuten bertan, eta bistan denez, ederki aritu ziren.

Infantil, junior eta senior kategoriako 21 igerilari aritu ziren Ordizian. Borja Apeztegia prestatzailearen hitzetan, "ondorio positibo ugari" atera ditu taldeak: "Prestakuntza prozesuaren baitako lehiaketa da Neguko Liga; orain arteko lana barneratzea eta egindako bidea baloratzea izan dira helburuak; gainontzean, gure igerilariak gogotsu lehiatu eta marka onak lortu zituzten joan den larunbatean".

Infantilek 200 libre eta 400 estiloak probak burutu zituzten. Bi horietan hainbat igerilari hobetu zituzten euren marka pertsonalak, eta beste zenbait gertu geratu ziren. Aipagarria da Leire Martinek 13 urte tartekoen errekorra ondu zuela 200 librean, erlojua 2:18.29an geratuz.

Bakarkako probek gain, infantilek 4x100 errelebuak burutu zituzten. Nesken taldeak taldeko marka berria eskuratu zuen, 4:28.75eko denbora eginda.

Junior eta seniorrak

Junior mailako igerilariak distantzia eta mota desberdinetako probak egin zituzten baita ere: 50 tximeleta eta libre, 100 bizkar eta 200 tximeleta. Nahia Jie Villamedianak 15 urte artekoen errekor berria ezarri zuen 50 tximeleta

proban, 32.12ko denboran geratuz kronometroa.

Senior mailan ere marka berriak ezartzea lortu zuten, euren prestakuntza erritmoa "desberdina" bada ere, Apeztegiak zehaztu legez: "Euren marketatik gertu ibili ziren". Hala ere, Iñigo Ibarburuk taldeko errekor berria eta marka pertsonala ondu zituen 200 bular proban (2:37.31).

Gipuzkoako Klubek Kopa

Azaroaren 26 eta 27ko asteburuan Gipuzkoako Klubek Kopan lehiatuko dira Buruntzaldea IKTko igerilariak. Ordiziako Majori kiroldegian jokatuko da txapelketa.

Bestalde, hilaren 26an Donostiako Paco Yoldi kiroldegian egingo diren teknifikazio saioetara deituak izan dira Nora Imaz, Joane Arzalluz eta Unai G. Somovilla.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 19

Michelin, 10:45ean
Ostadar SKT - Hernani CD
Kadeteen 1go maila,
10. jardunaldia.

Michelin, 12:30ean
Ostadar SKT - Beasain SD
Infantilen Ohorezko maila,
8. jardunaldia.

Martutene, Donostia, 15:30ean
Amara Berri KE - Texas Lasartearra
Erregionalen 1go maila,
10. jardunaldia

Michelin, 15:30ean
Ostadar SKT - Euskalduna SD
Erregionalen 1go maila,
10. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean
Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE
Emakumeen Lurralde maila,
9. jardunaldia.

Igandea 20

Michelin, 10:15ean
Ostadar SKT - Ordizia KE
Erregionalen Ohorezko maila,
11. jardunaldia.

Mastegi, Lesaka, 17:00etan
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
10. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa,
9. jardunaldia

Ostirala 18

Kirol gunea, 19:45ean
Kattagorri Insausti - Indaux
Kirol gunea, 20:45ean
Reformas Lagunak - Urdaneta H.K.

Belabieta kiroldegia, Ibarra, 20:30ean
Lauburu Aldaz - Cecilia Ostadar
Gipuzkoako 1go maila,
9. jardunaldia.

Larunbata 19

Kirol gunea, 09:30ean
Izkiña - Ibaros Latino
Kirol gunea, 10:30ean
Txoko - Viña del Mar
Kirol gunea, 11:30ean
Ilargi - Kebab Taberna
Kirol gunea, 12:30ean
Trumoi - Also
Kirol gunea, 13:30ean
Kattagorri Insausti - Aita Amari

Udal Kiroldegia, 18:00etan
Ostadar Antonio Aroztegia -
Elorriko Buskantza
3. Nazional maila, 10. jardunaldia.

Igandea 20

Michelingo kirol gunea, 10:45ean
Lasarte Kafe Bar - Zarautz 'B'
Gipuzkoako jubenilen maila,
5. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 13:00ean
ISU Leihoak - The Nest Hirukide
Gipuzkoako 1go maila, 9. jardunaldia.

SASKIBALOA

Ostirala 18

Udal Kiroldegia, 20:30ean
Ostadar SKT - Alde Zaharra
Senior gizonetako 3. probintziala,
2. jardunaldia.

Larunbata 19

Udal Kiroldegia, 11:00etan
Ostadar SKT - Easo
Errendimenduko junior neskek, A2 liga,
6. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 16:00etan
Ostadar SKT - Oiarso
Errendimenduko junior neskek, A1 liga,
10. jardunaldia.

Bidebieta kiroldegia, Donostia, 16:00etan
Easo 02 - Ostadar SKT
Errendimenduko kadeteak, 9. jard.

Igandea 20

Udal Kiroldegia, 09:30ean
Ostadar SKT - Easo 02
Partizipazioko kadeteak, 5. jard.

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Donosti Dolphins
Senior emakumezkoen 1go
probintziala, 7. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 18

Herrikoa pilotalekua, Lantziago, 22:00etan
Arteaga II/Salaverri - Laso/Erasun
Eskuz binakako norgehiagoka.

ERRUGBIA

Larunbata 19

Asti, Zarautz, 10:30ean
Gure Etxea Beltzak - Getxo RT
16 urtez azpikoan liga.

Zubieta, Hernani, 10:30ean
14 urtez azpikoan,
Federazioko jardunaldia.

Asti, Zarautz, 11:45ean
Gure Etxea Beltzak - Getxo RT
18 urtez azpikoan liga.

Agenda

Larunbata, 17:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxean



Hondartzako abenturak

Txipli Txapla antzerki taldeak 'Tomaxen abenturak' antzezlan eskainiko du. Abentura honetan Tomax eta Muxugorri hondartzara joango dira. Ederki gozatuko dute ikusleek itsasoko animaliekin, dantza edo arrantza eginez. 3 urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana da. Sarrera, 3,80 euro.

helduen saioetan. Sarrera, haurren saioa, 3,80 euro eta helduen saioa, 5,50 euro.

Igandea 27, 17:00etan eta 19:30etan
'Un monstruo viene a verme' filmaren saio bikoitza eskainiko da haur eta helduen saioetan. Sarrera, haurren saioa, 3,80 euro eta helduen saioa, 5,50 euro.

Emakumeen kontrako indarkeria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 22, 19:00etan

Irantzu Valera Faktoria Lilako kideak hitzaldia eskainiko du.

Asteazkena 23, 19:00etan

Beldur Barik lehiaketako sari banaketa izango da.

Mahai-ingurua

LANDABERRI BHI

Asteazkena 24, 18:00etan

GuraSOS elkarteak 'Lasarte-Oria +: Osasuna eta adostasuna' mahai-ingurua antolatzen du. Lasarte-Oriako osasun, hezkuntza eta gizarte arloko hizlariak izango dira.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 24, 18:00etan

KontuKantoiko kideek 6-8 urteko haurrei zuzendutako ipuin saioa eskainiko dute.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 24, 19:00etan

Anselmo Lorenzo elkarteak 'Memoria Viva' dokumentala erakutsi eta hitzaldia eskainiko du.

Lasarte-Oria

Ttakun 25. urteurrena

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata, 20:00etan

'Bi zaldi' taldearen kontzertuaz gozatu ahalko da.

Azaroaren 21era arte

Ttakun Kultur elkarteko ibilbidea jasozten duen erakusketa izango da ikusgai.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Txalo produkzioak 'El tipo de la tumba de al lado' antzezlan eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

Beldurrezko gaua

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 22:00etan

Beldurrezko Gaua izango da. 'Nunca apagues la luz', 'Ouija. El origen del mal' eta 'No respites' beldurrezko filmak ikusgai izango dira. Sarrera, 12,00 euro.

Santa Zezilia

ARANTZAZUKO AMA ELIZA

Igandea, 12:00etan

Alboka Abesbatzak meza girotuko du.

LASARTE-ORIako KALEAK

Asteazkena 23, 18:30etan

Udal Musika eskolako kideek kalejira egingo dute herriko erdiguneko kaleak girotuz.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

'Zikoinak' animaziozko filma eskainiko dute haurren saioan. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.

Igandea, 19:30etan

'El hombre perfecto' filma eskainiko dute helduen saioan. Sarrera, 5,50 euro.

Ostirala 25, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zine forum atalean, 'Neruda' filma ikusi eta aztertuko da. Sarrera, 5,50 euro.

Larunbata 26, 17:00etan eta 19:30etan

'Un monstruo viene a verme' filmaren saio bikoitza eskainiko da haur eta

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, azaroaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Aterpeko zenbaki saritua

Aterpea Merkatarien elkarteak antolatutako 'Bezeroaren Hamabostaldia' kanpainan zozketatzen ziren 300 euroak 08761 zenbakiko txartelak eskuratu ditu, hau baita urriaren 31eko ONCEko zozketako zenbaki saritua.

Onuraduna jar dadila harremanetan Aterpea Merkatarien elkarteko kideekin bazkide den edozein dendara hurbilduz.

Eskutitza

EH Bilduren balorazioa 2017. urterako onartu berri den Ordenatza Fiskalen espedienteari buruz

Azaroaren 8ko ohiko Udal Batzarrean 2017. urtean lasarteoriatarrek ordaindu beharko dituzten Tasak onartu ziren. EH Bilduk kontrako bozka eman zuen, hona hemen gure balorazioa:

Lehenengo eta behin, Udal gobernuak aurkeztutako Ordenantzen Espedienteari EH Bilduk zortzi emendakinak aurkeztu zituela esan behar da, eta bat bera ere ez dela onartu. Zilegia da, jakina, baina, ulertuko dutenez, ez da Espedienteari babesa bilatzeko modu egokiena.

Baina badaude arrazoi inportanteak ezezkia emateko, garrantzi handikoak guretzat, nahiz eta, ikusten denez, enegarren mailakoak izan PSOEn edo PNV-rentzat. Batzuk aipatuko ditugu. Udal espazioak, eta Kultur Etxeko auditoriuma zehazki, erabiltzeagatik berretsi den tasa da horietako bat. Ulertezina iruditzen zaigu etekin asmorik gabeko herriko talde eta elkarteekiko markatzen den jarrera. Herriko taldeen dinamika

sustatu, bultzatu eta lagundu beharrean, kontrako bidea hartzen da: oztopo eta trabak jartzen dira. Mingarria gertatu zaigu, adibidez, Ogasun Batzordean alkateari entzutea herriko talde batek bideo bat grabatu baduela bere promoziorako izan dela, emanaldi eta diru-sarrera gehiago lortzearren izan dela, edozein Bisbalek egingo zuen moduan esan gabe baina iradokiz. Azkenean, norberaren barne-mekanismoak, logikak eta ideologia proiektatzen dira horrela: ideologia merkantilista. Bada, ez. Herriko taldeek lasarteoriatar guztion alde egiten dute lan; gustuko lana, bai, baina lana, eta guztiontzat. Eta diru-sarrera handixeago bat lortzen badute taldeko jardura hobetzeko inbertitzen dute, herriari ekarpen handiagoa egiteko. Ez besterik. Herri biziaren kontrako ordenantzak izan dira, beraz.

Gure kontrako bozka emateko unean erabateko garrantzia izan du, baita ere, PSOE eta PNV-ren bozkekin

Zabor Bilketaren Tasan onartu den %4-ko igoera. Lehenengo harria jarri gabe ere (eta borrokan jarraituko dugu hori inoiz ez gertatzeko), hasi gara Erraustegia ordaintzen. Martxan jarriz gero, gure eta hurrengo belaunaldietako osasuna kolokan jarriko duen Erraustegia; Lasarte-Oria eta Gipuzkoa ekonomikoki hipotekatuko dituen datoren 35 urteetan. Herri osasuntsuaren kontrako ordenantzak izan dira, beraz.

Oro har eta laburbilduz, lehen aurrekontuekin gertatu moduan, orain Ordenantza Fiskalen onarpenarekin legegintzaldiaren hasierako PSOE eta PNV-ren arteko akordioa bete da, berriz ere. Lasarteoriatarren kalterako, gure ustez.

EH Bildu

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus



Txalaparta doinuek eman zioten hasiera ekitaldiari.



Bea Egizabalek Ttakuneko ekintza eta programei buruzko umorez betetako bakarriketa eskaini zuen.



Ttakuneko lehendakari Tomas Arrizabalagak hitz batzuk eskaini zituen.



Ttakunenea lokalaren inaugurazio eta zinta mozketa berezia egin zen.

'Izan zirelako gara', Ttakunek 25 urte bete ditu

Urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zen Ttakunenean

Ttakun kultur elkarteak 25. urteurrenako ekintzak hasi ditu. Asteazkenean, Ttakun sortu zeneko 25 urte bete zirenean, ekitalditxo bat egin eta Ttakunenea inauguratu zen.

TXINTXARRI

Ttakun kultur elkarteak 25. urteurrenaren ekitaldia txalapartaren doinuekin hasi zen. Tomas Arrizabalaga Ttakuneko zuzendariak urte hauetan elkartearen lan egin duten guztiei eta batez ere, eta horretarako Artzeren hitz batzuk aipatu zituen, "izan zirelako gara".

Ttakunenea lokal berria eta honen irekierari ere egin zion aipamena, "euskararen arnagune berria da. Bertan herritarrak euskaraz bizitzera eta arnastera gonbidatzen ditugu. Guztiei irekia da".

Umorea nagusi

Bea Egizabalen eskutik, lokala

inauguratzeko zinta mozketa berezi eta umoretsua egin zen. Honetan ekitaldira hurbildutako guztiek parte hartu zuten. Borobil batean, zintak inguraturik pertsona ezberdinek moztu zuten zinta.

Ostean, Ttakunen ibilaldiari eta ekintzei errepaso ederra egin zuten Ttakun kit-ari esker. Santo Tomasetik Sorgin dantzara, Amaraun Klubetik Faktoriara, abaraska, solaskideak, Xumela, bertso saioak, ikastaroak, Euskararen Maratoia... nabarmendu zituen.

Telefonoa edozein momentutan eskura izan behar dela ere azpimarratu zuen, "euskararen alde, edozein ekitalditan

laguntzeko prest al zauden galdetzeko deitzen dizute".

Eta noski ezin utzi begirale, langile eta zuzendaritza aipatu gabe. Ttakunen begirale izatea katxea ematen duela, langileek denetarik jakin behar dutela eta ordu pila sartzen dituztela edo euskalgintzarako harrobi izan dela ere adierazi zuen. Gainera, "Ttakun bitzitza plana da haur zarenetik zuzendaritzara", esan zuen.

Era berean, puzzle zatitik herria saretzera, herrigintzan eta herriaren kohesioan egindako lana azpimarratu zituen eta Ttakun gabeko Lasarte-Oria bat imajinatzen gonbidatu zituen bertaratutakoak. Honela, 25 urte hauetan egindako lana eskertu zuen.

Ekitaldiari amaiera emateko luntxaz gozatu ahal izan zen.


Musika eta irudiak urteurrenari amaiera emateko

Ttakun elkartearen 25. urteurrenako ekintzak ez dira ekitaldi honekin amaitzen.

Larunbatean, 'Bi Zaldi' taldearen musikaz gozatu ahal da Jalgi Kafe-Antzokian. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Zaldibiko taldeak abesti ezagunen bertsioak eskainiko ditu, baita haien kantuak ere.

Bitik hirura

'Bi Zaldi' 2014an Zaldibiko Haize Bazterrak sorkuntza espazioan sortu zen bikote akustikoa zen. Bi ahots eta gitarrak ostutako taldea zen, baina zuzenekoetan saxofoia gehitzea erabaki



Jalgira hurbiltzen diren herritarrek Ttakunen ibilbidearen irudiez gozatu dezakete.

eta horrela, hirukote bilakatu ziren.

Hasieran, beste taldeen antzera, atzerriko kantuak moldatu eta hitzak euskarara itzultzen zituzten. Baina

2015ean pauso bat gehiago eman eta haien kantuak sortzen hasi ziren.

Erakusketa

Bestalde, Jalgi Kafe



'Bi Zaldi' zaldibiko taldearen kontzertua izango da bihar. BI ZALDI

Antzokian, Ttakunek 25 urte hauetan egin duen ibilbideari buruzko erakusketa izango da ikusgai.

Irudiak dira nagusi, baina

aurrera eraman diren proiektu, ekintza edo lortutako testuak ere aurki daitezke.

Erakusketak asteartean itxiko ditu ateak.